

EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA-HEGATS

Datuak biltzea baimentzeko klausula

Nor da zure datuen erantzulea?

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduan (UE) ezarritakoaren arabera, jakinarazten dizugu zuk emandako datu pertsonalak EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA-HEGATSek erabiliko dituela. Elkarteak G20094447 IFK du, eta hau da bere helbidea: Zemoria 25, behea – 20013, Donostia (Gipuzkoa).

Zertarako erabiliko ditugu zure datu pertsonalak?

Zure datuak ezinbestekoak zaizkigu berme osoz eman ahal izateko zuk eskatutako zerbitzua, eta helburu hauetarako erabiliko ditugu: Bezeroen kudeaketa, kontabilitateko kudeaketa, zerga kudeaketa eta administrazio kudeaketa; Publizitatea eta merkatuaren azterketa; Beste helburu batzuk.

Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datuak?

Interesdunarekin harremanetan jartzeko beharrezkotzat jotzen ditugun bitartean gordeko ditugu bildutako datu pertsonalak.

Zerk legitimatzen du zure datuen erabilera?

Erantzuleak datuak erabiltzeko dituen legezko interesak: Datuak erabiltzeko legezko oinarria interesdunak gure erakundearekin harremanetan jartzean emandako baimena da.

Zer eskubide dituzu datuak ematen dizkiguzunean?

Pertsona orok du bere datu pertsonalak ikusi, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea, horien erabilera mugatzekoa, horiei aurka egitekoa edo horiek eramatekoa. Eskubide horiez baliatzeko, goian adierazita dagoen helbidera idatzi behar diguzu, edo mezu elektronikoa bat bidali kudeatzaile@idazleak.eus helbide elektronikora, eta zer eskubide erabili nahi duzun adierazi behar duzu.

Era berean, edozein unetan ezeztatu ahal izango duzu emandako baimena. Baimena ezeztatzeak ez du inolako eraginik izango baimena ezeztatu aurretik egindako erabileren zilegitasunean.

Datu pertsonalen babesari dagokionez zure eskubideak urratu dituztela iruditzen bazaizu, erreklamazio bat aurkez dezakezu kontrolerako agintaritzaren aurrean.